

**2022KO ABENDUAREN 27AN EGINDAKO  
OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK**

**Alkate-Lehendakaria**

Gorka Murua Macuso

**Zinegotziak**

Noelia Lataburu Ortiz  
Mikel Iturbe Saizar  
Olaia Nieto Legarra  
Leticia Aristi Oria  
Ana Jesus Leunda Gurrutxaga  
Jose Ramón Epelde Irizar  
María Cristina Santos San Sebastian  
Marta Castrillo Iturralde

**Idazkaria:** Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Arratsaldeko 19:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Iruran, 2022ko abenduaren 27an arratsaldeko 19:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Irurako Udaleko OHIKO Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bilera, publikoari irekia izango da, eta edozein herritarrek bere eskura izango ditu bileraren akta eta audio grabazio argitaratu ondoren eskuratzeko.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Gorka Murua Macuso izan da Batzarburua.

**1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:**

\*2022-11-29ko bilkurako aktaren onespena. **Aho batez onartu da.**

**2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2022KO AZAROAREN 24TIK 2022KO ABENDUAREN 21ERA (2022/315 - 2022/343).**

Alkatetzak 2022ko azaroaren 24tik 2022ko abenduaren 21era bitartean (2022/315-2022/343) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

### **3.- EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA (ESEP) URTEBETEZ LUZATZEKO PROPOSAMENA ONARTZEA.**

Alkateak hartu du hitza eta adierazi du, 2022an amaitzen dela ESEP (2018-2022) ekintza plana eta HPSk aurten jakinarazi duela ESEP berriaren marko orokorra prestatzen ari dela eta, erakunde gehientsuenetan planak aurten amaitzen direnez, planak urtebetez luzatzeko gomendioa egin duela, hau da, 2023ko abenduaren 31 arte.

Hori dela eta, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana beste urtebetez (2023ko abenduaren 31 arte) luzatzeko erabakia hartzea eta HPSri akordioaren berri ematea proposatu du.

## **ERAKUNDEAREN PLAN ESTRATEGIKOA**

**ERAKUNDEA:** Irurako Udala

**URTE TARTEA:** 2018/01/01 - 2022/12/31

**LUZAPENA:** 2023/12/31

**EGOERA:** luzatua

**TXOSTENAREN DATA:** 2022/12/22

**BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.**

### **4.- GALDE-ERREGUAK.**

Ez dago.

Alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:05etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.